

PRO PON TE LOS



OBJETIVOS DE DESARROLLO
DEL MILENIO
www.objetivosdelmilenio.com

► MILURTEKOKO GARAPEN HELBURUAK

MGHak: 2000. urtean, 189 Estaturu eta Gobernuburuk sinatu zuten *Milurtekoko Adierazpena*, eta elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu zuten *Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH)* lortzeko eta 2015. urtea baino lehenago munduan *muturreko pobrezia*rekin amaitzeko.

Aurrekaririk gabeko konpromisoa izateaz gain, 8 MGHeK ibilbide-orria markatzen dute garapenerako. Horien aurrerapena zenbait helmuga eta adierazleren bitartez neurtzen da, eta horiek betetzeko azken egunak jartzen dira.

Honako hauek dira 8 MGHak:

MGH 1



Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea.

MGH 2



Denontzako oinarrizko hezkuntza lortzea.

MGH 3




Sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea.

MGH 4



Haurren hilkortasuna murriztea.

MGH 5



Amen osasuna hobetzea.

MGH 6



VIH/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea.

MGH 7



Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea.

MGH 8



Garapenerako mundu osoko elkarteak sustatzea.

MGHen bitartez, sinatu zuten herrialde aberatsek *garapenari laguntza handiagoa eman*, kalitate handiagoko laguntza eman, *kanpo-zorra deuseztatu* eta *merkataritza-arau bidezkoagoak* ezartzeko konpromisoa hartu zuten.

FINANTZATZAILEA:



ITZULTZAILEA:



EDUCACIÓN
SIN FRONTERAS